

JOAN PAULO ANDIA

Berba asko erabili izan dira Joan Paulo II.aren ondrotan. Eta geien gustatu jatana Sodano kardinalak bere homilian esandakoa: "Joan Paulo Andia". Eziñezkoa da bere bizitza eta bere pentsamendua laburbiltzea, baina merezi dau azaletik izanda be, bere gauza batzuk aipatzea.

1. Bere biografia

Karol Józef Wojtyła Polonian jaio zan. Wadowice errian, 1920ko maiatzaren 18an. Gurasoen izenak, Karol eta Emilia. Iru neba-arreba dira. Bera jaio baiño leenago ilgo jako arrebea. Bederatzi urte ditula ilten jako ama. Amabi urte baño ez ditu bere anaia nagusia ilten danean. Eta aita il ondoren, ogei urtekin umezurtz geratzen da.

Goi-mailako ikasketak Krakobiako Unibertsitatean asiko ditu. Filosofia karrera aukeratzen dau. Teatro-eskola baten be matrikulatzen da, "Sudio 39" deritxonean. Maite ditu liburuak. Batez be filosofia, historia, literatura, poesia, teatroa, skia.

Baina zoritxarreko Bigarren Gerra Mundiala sortzen da. Naziak debekatu egiten dabez goi-mailako ikasketak. Eta kimika-industria lantegi baten asiko da bearrean. Alan eta guztiz be, lagun bategaz "Rapsodia Teatroa", eraikiko dau, nazismoaren aurka, poloniarren kultura eta moralari eutsi ta zabaltzeko.